



INDIAKO EMAKUMEAK LANDA-EREMUAN

Asia hegoaldean, emakume gehienek gizarteko mailarik baxuenetan bizitzen jarraitzen dute. Hinduismoak eta islamismoaren hainbat interpretaziok emakumea gizonaren mendekotzat eta azpikotzat jotzen dute. Manuren kodeak emakumeari, haren kasta edo klasea edozein izanik ere, gizarteko kategoriarik baxuenaren pareko izaera soziala esleitzen zion, eta ondasunak oinordetzan hartzea debekutzen zion.

Hinduismoa nagusi den Indiako zatian, emakumeak lan-indarreko kide aktibo dira. Batez ere hegoaldeko eta ekialdeko estatuetan, kasta pobreenen artean eta tribuen eremuetan, emakumeak paper garrantzitsua betetzen du nekazaritza-langile gisa. Ordainsari txikiagoa jasotzen du beti, eta oso litekeena da emakumea gizona baino lehenago botatzea lanetik kalera.

Familia pobreetan, emakumearen diru-sarrerak, urriak diren arren, bizirauteko elementu garrantzitsua dira (emakumeek irabazten duten ia diru guztia familian gastatzen dute, eta gizonak, berriz, zati handi bat beren erabilerarako gordetzen dute).



Emakumea, Iraultza Berdea eta familiaren elikadura

Asian garatzeko bidean dauden ia herrialde guztietan emakumeak zeregin garrantzitsuagoa betetzen du familiarako elikagaiak produzitzeari dagokionez. Emakumea, beraz, nekazaritza-iraultza-
ren (Iraultza Berdea ere deritzo) erdi-erdian dago, eta iraultza hori ur kantitate handia, ongarrrien erabilera eta mekanizazioa eskatzen duten hibridoen garapenaren bitartez elikagai-produkzioa intentsifikatzeko politikan oinarritzen da.

Azterlan gehienek adierazten dute emakumea atzerapen neurrigabea jasaten ari dela Iraultza Berdea aurreratuago dagoen eta produkzioan aldaketa handiak jasaten ari den nekazaritza-ekonomiaren zatietan. Eskulan-eskakizun handieneko zereginetara baztertzen dute, edo alde batera uzten dute erabat.

Indian, eskulan independentearen eskaera handitu egin den arren, soldata baxuekin jarraitu dute, desalojatutako errentarien ugaritzeak ekarri duen eskulan-eskaintza handiagoaren ondorioz. Sasoi-kako lan-indar horren gehiengoa emakumeek osatzen dute, haien zerbitzuak merkeagoak baitira. Gizonei baino gutxiago ordain dakieke, eta askotan ordu gehiago lan egiten dituzte.

Askotan, lurrak kendu zaizkien gizon askok nahitaez migratu eta beste hiri batean bilatu behar dute lana. Horrek ekarri du landako etxe askotan emakumea buru izatea, eta zaharrez eta neska-mutilez arduratu behar izatea.



Chipko-mugimendua

Chipko hitz hindia da, “besarkatu” esan nahi duena. Chipko-mugimenduak izen hori du bere kideek zuhaitzak besarkatzen zituztelako, zuhaitzak ez mozteko. Lehen Chipko-langileak baso-politika ofizialekin ados ez zeuden eta batez ere tokiko enpleguarekin kezkatuta zeuden gizon eta emakumeak baziren ere, gero eta emakume gehiago sartu ziren mugimendu horretan, izan ere ohartu ziren deforestazioa zela jasaten zituzten uholde eta lur-jausi ugarien arrazoia.

Baso Gaiei buruzko Sailak Alaknanda ibaiaren alboan dagoen Reni Basoko 2.500 zuhaitzen enkantea iragarri zuenean, emakume batek, Gaura Devi izenekoak, bere herriko emakumeak antolatu zituen zuhaitz horiek erosi zituen konpainiatik babesteko. Zuhaitzak moztea eragotzi zuten fisikoki, eta Uttar Pradesh-eko gobernuak egoera ikertzerara behartu zuten. Bi urte geroago, gobernuak herrialdeko eremu hartan zuhaitzak moztea debekatu zuen hamar urtez. Ondoren, beste emakume batzuek Himalaian zehar hainbat basotan zuhaitzak moztea eragotzi zuten. Gainera kooperatibak ezarri dituzte, auzo-basoak gordetzeko eta bazkaren produkzioa zuhaitzak kaltetzen ez dituen neurri batean antolatzeko. Chipko mugimenduaren barruan emakumeek bazkaren bilketa errazteko landare-txandaketako proiektuetan parte hartu dute, degradatutako lurrak birpopulatu lagundu dute, eta beraiek hautatzen dituzten espezieekin populatzen dituzten mintegiak ezarri eta zuzendu dituzte.

Raturik ekitaldi hartan honako poema hau idatzi zuen, eta protesta-ekintzetan errezitatzen zuten:

*Besarkatu gure zuhaitzak,
Salba itzazu erorketatik.
Gure mendien eremua,
Salba ezazu harraparitzatik.*



Emakumeak Indian
Garapenaren eragile
Mujeres en India
Motor de desarrollo

